

DROGETEN ITURRA

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 302. zenbakia. 2021eko uztaila



**Bada hezteko
beste modu bat**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adtua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomatua.
Autran Institutoa. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Dokorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara

Irribarreetan adituak

Etor zaitez gu ezagutzera

Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

JARRAI IEZAGUZU

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **www.clinicairazabal.com**



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**
Tel.: 943 20 85 52 - **www.clinicairazabal.com**

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Estibalitz González,
Eneko López,
Nahia Ruiz Albizuri,
Jon Saez,
Libe Solozabal
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA
ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Martínez.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Alicia Lorenzo,
Mallabiko Kultur Etxea
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

Axpe Aja, Igone Amesti,
Mikel Areitioaurtena,
Estibalitz González,
Alazne López, Eneko López,
Leire Martínez, Valentin Mugarza,
Jesús María Pato,
Nahia Ruiz Albizuri,
Ermuko Udala
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ayoub Hdidou
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: erronda-kantua

Hijas de Fotera

(Entzuteko: www.alboka.es)

Las hijas de Fotera
y Josefina,
con mantón de manila
y peinetina,
pasean por las calles
con tío Zipri.
Las hijas de Fotera
y Josefina.

Tío Zipri,
¡qué guapo estás,
con sombrero de copa
y el traje frac!



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA 4 Alazne López (Italia)	ZAHARRAK BERRI..... 16 Jesús María Pato
ELKARRIZKETA 5-7 Mikel Areitioaurtena aktorea	KIROLZALE 17 Axpe Aja
MALLABIAN ZER? 8-9 Errespetuzko hezkuntza	IRITZIA..... 18 Hitz batean (Alicia Lorenzo)
ERREPORTAJEA 10-11 Eladia Unamuno parterria	BOTEPRONTOAN 19 Pablo Intxaurreaga
MOTZEAN 12-13 Maria Rosario Arrizabalaga hil da	ANTZINAKOAK 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 14-15 Alazne Lete, ELAKO Bizkaiko ordezkaria Amaia Galindo de Paula idazlea	ZORION-AGURRAK..... 21 Saldu, erosi edo agurtu
	ABUZTUKO AGENDA ... 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Alazne López

2019an hiru hilabetetarako joan zen Florentziara Alazne Lopez ermuarra, haurtzaindegi batean praktikak egitera. Aurtengo otsailean bueltan zen au pair lez, eta orain Radio Italia 5eko *On Air* programako erredaktorea da.

- Erabaki erraza izan zen beste herrialde batera bizitzera joatea?

Bai, aurretik Bilbon egon nintzen bizitzen eta orain ere kanpoan bizi naiz, baina urrutiago. Azkenean familiak beti lagatzen ditu ateak zabalik, eta seguru dakit nahi dudanean bueltatzeko aukera dudala.

- Zer dela-eta joan zinen?

Au pair moduan etorri nintzen Florentziaren kanpo aldean bizidun familia baten etxera, eta bertan bi hilabete eman nituen bi ume zaintzen. Esperientzia polita izan zen, baina gerora lana topatu nuenez, erosoagoa egin zitzaidan nire kabuz ibiltzea.

- Zer lan mota topatu zenuen?

Independizatu ahal izateko lana bilatzen hasi nintzen, eta irrati batean erredaktore moduan lan egiteko aukera heldu zitzaidan. Radio Italia 5eko *On Air* programan egiten dut lan orain, eta nire eginbeharra da jendearekin harremanetan jartzea. Hau da, nik aukeratzen dut zein elkarrizketatu, edozein esparrutakoa: jatetxeak, disko-dendak edo bururatzen

zaidan edozer. Umbria, Reggio Emilia eta Toscana probintzietako edozein pertsona, talde, artista edo denda aukeratu dezaket, eta irratsaioaren bidez publizitatea egiten diogu. Esmatu eta egiten dudan lehen gauza da jendearekin kontaktuan jarri. Deitu egiten diet eta galdetzen diet ea gure irrati-rako elkarrizketa bat egiteko prest dauden.

- Zelan moldatzen zara hizkuntzarekin?

Oso gustura nago, badakidalako italiaraz. Praktiketarik bueltatu nintzenean ia ez nekien hitz egiten; au pair bezala, ordea, asko ikasi dut: umeekin bai edo bai italiaraz hitz egin behar nuelako! Orain bizitza italiaraz egiten dut, nahiz eta nire pisu kidearekin eta gertuko lagun taldearekin gaztelaniaz egiten dudana. Dena den, mundu osoko jendea daukat inguruan, eta haiekin hitz egiteak asko lagundu dit hizkuntza ikasteko.

- Zer da Florentzian gehien gustatzen zaizuna?

Giroa. Jende asko dago, herrialde ezberdinetakoa, eta gazte



Alazneren atzean, Florentziako Santa Maria del Fiore basilika.

asko, orduan beti dago giro ona. Italian, orokorrean, kalean egiten dute bizitza eta gainera, ez du euri askorik egiten. Orain, baina, bero larregi dago.

- Zer ohitura daude?

Ez da poteorik egiten, baina aperitibo hartzeko ohitura badago. Spritz bat hartzerantz irteten dira eta, harekin batera, janaria ateratzen dizute tabernetan. Kalean bizi dira eta kalean jateko ohitura dute, eta oso ohikoa da *schacciata*, ogitarteko antzeko bat.

- Zer botatzen duzu faltan?

Gauza asko. Hemengo txarre-na da tabernetan edatea oso garestia dela.

- Ermura bizitzera bueltatuko zarela uste duzu?

Bai, baina ez berehala. Florentzia hiri txikia da eta erdigunean bizi naizenez, kalera irtetean jende gehiena da ezaguna. Eta aspertzen naizenez, ez baita denbora asko pasako, beste nonbaiten zerbait aurkituko dut, beste hiri bat ezagutzera joango naiz, eta hizkuntza berri bat ikastera.

Libe Solozabal



Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitarakoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12



Mikel Areitioaurtena, aktorea:

“Antzerkian aktoreen eta ikusleen arteko energia trukea dago”

Mikel Areitioaurtenak (Ermua, 1969) Geroa Taldean eta Ermuko Antzerki Tailerrean ekin zion interpretazioari. 1995ean Madrilera alde egin zuen, Juan Carlos Corazzaren interpretazio-eskolara, eta garai hartan ohartu zen bere benetako pasioaz: *clown* antzerkia. Ordutik antzezlan ugari egin ditu, hala nola telebistarako eta zinerako noizean behingo lanak. Antzerkigintzako zeregin ugaritan aritutakoa, bere konpainia sortu berri du, irakasle eta zuzendari lanekin tartekatzen dituena. Elkarrizketa hasi baino lehen, uztailaren 12an zendutako Maria Rosario Arrizabalagaz oroitu da: "Integrazioaren, berdintasunaren eta gizarte eskubideen aldeko lan nekaezina egin duen emakumea".

- Non eman zenituen lehen pausoak antzerkigintzan?

Ermuan. Geroa taldean egon nintzen, Alfonso Torregrosa-ekin, baina talde hura zatitu egin zen. Izaskun Asua eta Ricardo Combi etorri ziren, eta orduan jaio zen Ermuko Tailerra (1988an). Ermuak artista asko eman ditu (musikariak, aktoreak...), bokazioa dago, eta zaindu beharreko zerbait da.

- Talde horrekin antzeztu zenuen lehen lana gogoan duzu?

Bai, noski! *Como un juego todavía*, Sara Rodríguezekin. Londresko apartamentu batean geratuta dauden bi gazte dira antzezlanaren protagonistak, haien lehen sexu-harremana izateko asmoa dutenak.

- Urte batzuk geroago, Madrilera joan zinen, Juan Carlos Corazzaren eskolara...

Bai. Hiru urte eman nituen bertan, eta han nengoen bitartean, Teatro Realen egon nintzen lanean, figurante bezala. Operetan aditua naiz ia-ia! Horrez gain, interpretazioarekin zerikusirik ez daukaten lanetan jardun behar izan nuen: saltoki handi batean (alkandorak tolesten eta lepoak neurtzen), eta linea erotikoa batean, besteak beste. Antzerkigintzan ere hamaika lan izan ditut: aktore, zuzendari, zuzendari-laguntzaile, errejidore, txartel-saltzaile...

- Zer dela-eta hasi zinen pailazoaren edo clownaren bidean? Ikastaro ugari egin nituen, tartean pailazoa izateko, eta hor topatu nuen nire gustuko esparrua. Susana Toscanorekin formatu nintzen, eta hamaika lan egin genituen elkarrekin:



Mikel Areitioaurtenak Pequeño Deseo fundazioarekin kolaboratzen du.

"Pandemia honen ostean, guztiok egin beharko genuke antzerki ikastaro bat"

bera zuzendari eta ni pailazo. Parke tematikoetan ikuskizunak eskaintzen hasi ginen udan: Ledburyn (Ingalaterra), Port Aventuran, Terra Mítican, Isla Mágican... Leku ugarietan egon ginen. Gerora ere hainbat antzezlan egin genituen elkarrekin: *Paso ligero*, *Singlamour*, *Anda jaleo* (Alen Kortazar ermuarrarekin)...

- Zer da zuretzat antzerkia? Jolasa da. Astronautaren rola egin behar baduzu, astronauta izatera jolastu behar duzu. Oso hurbil daukagu adibide esanguratsu bat: Plazan futboleko jokatzaren duten umeek, ilea gominarekin orraztuta, uste dute Cristiano Ronaldo edo Messi direla, eta hori da interpretatzea. Sinestea ez zaren pertsona bat zarela: astronauta, polizia, lapurra...,

eta ikuslearen emozioetaraino heltzea.

- Nola prestatzen dituzu pertsonaiak?

Pertsonaiaren arabera ezberdin jokatzaren dut, baina plazerra bilatzen dut beti. Nahiz eta gauza dramatikoak interpretatu, gozatzen saiatzen naiz, eta saioa bukatutakoan ahaztu egiten dut. Badaude aktoreak saioa bukatutakoan lur jota daudenak, pertsonaiak eta euren bizipenak nahasten dituztelako. Aktore bat sufritzen ari bada, publikoak igartzen du. Publikoari ezin zaio engainatu.

- Interpretatzeko modu ezberdinak daude?

Bai, emozioak transmititzeko bide ezberdinak daude, eta horietako bat *clowna* da, niretzat atsegina dena. Plazerra ematen dit jendearengan ba-

rra, edo negarra, eragitea. Esaten dute errazagoa dela negarra eragitea, barrea baino. Eta bat nator horrekin.

- Talentuak edo esfortzuak, zerk dauka pisu gehien?

Talentua baino, xarma hitza erabiltzen dut nik. Xarma hori igartzen da, publikoak igartzen du. Batzuetan xarmadun pertsona hori eszenatoki gainean dago, ezer esan barik, eta hala ere berarengana doaz begirada guztiak.

- Antzerkian jardun duzu batez ere, baina telebistan eta zinean ere baduzu esperientzia. Zeintzuk dira formatu horien artean dauden alderik handienak?

Zinea eta telebista berdintsuak dira, antzerkia beste gauza bat da: zuzenean egiten da, harreman zuzena duzu ikuslearekin...

- Publikoarekin harremana igartzen da?

Jakina: bion arteko energien hartu-emana da antzerkia. Zirrara sortzea lortzen baduzu, segituan igartzen da.

- Norekin aritzen zara gusturago, nagusiekin edo umeekin?

Umeak nahiago ditut, haiek dira nire publikoa. Gainera, oso zintzoak dira: ez bazaie gustatzen, alde egiten dute.

- Zaila da aktore bezala bidea egitea?

Ez da erraza. Euskal Herrian ez dago aukera asko; Madrilera, aldiz, lan aukera asko dago, baina aktorez lepo dago. Casting batean 725. zenbakia izan nuen, pentsa! Aktore bezala jardun nahi baduzu, beste aukera batzuk bilatu behar dituzu. Nire kasuan, Ermuan nagoenetik umeentzako ikuskizun bat prestatu dut, eta

ikusbizunak antolatzen dituen konpainia bat sortu.

- Interpretazioa idealizatutako ogibidea da?

Baliteke, baina kontuan izan behar da aktoreen % 94 langabezian dagoela: % 6a idealizatzen ari gara! Telebistan agertzen den % 6a! Horren adierazle da duela gutxi iragarki bat egin dudala telebistarako, eta horrek izan du nire beste edozein lanek baino oihartzun handiagoa.

- Lan ezezagokorra da?

Gutziz, eta ez dago ordutegi-

rik, ez astebururik. Nire bikoitekideak beti izan dira interpretazioaren mundukoak, eta hala ere zaila.

- Beti izan duzu aktore izateko grina?

Baietz esango nuke. Eskolan ni izaten nintzen besteei barrea eragiten ziena, mezaguntzailea ere izan nintzen (jende guztiak ni ikusteko)... Protagonista izatea gustatzen zitzaidan.

- Uste duzu antzerkia garrantzitsua izan daitekeela umeen eta helduen garapenerako?

“Etorkizunean, gaur egun dudan energia berdina izan nahiko nuke”

Bai, antzerkia egitea ondo pasatzea da. Uste dut derri gorrezko ikasgaia izan beharoko litzatekeela, galtzen ari garen balore asko sustatzen dituelako: empatia, errespetua, imajinazioa, fantasia... Eta pandemia honen ostean, guztiok egin beharoko genuke antzerki ikastaro bat. Antzerkia ez da bakarrik eszenatoki batera igotzea, ez, ume bat bezala jolastea da.

- Zertan diharduzu gaur egun?

Ermura etorri baino lehen 3 urtez bizi izan nintzen Sevillan, eta bertan ezagutu nuen Javi Gragera. Berarekin batera sortu dut lehen aipatu dudan animazio-konpainia: Lekim Animazioak. Lan txikiak egiten genituen hasieran (eskoletarako, bileretarako...), eta orain gauza handiagoak egiten ditugu (Udaletarako, jai herrikoietan, azokak...): kalejirak, interpretazioak eta klarion-tailerrak, besteak beste. Zaila da oso errotuta dauden taldeekin lehiatzea, baina Eibarko Udalak, esaterako, hainbatetan deitu digu, eta pozik gaude.

Hemendik gure esker hona bertako Kultura Sailari.

- Antzerkia alde batera utzi duzu?

Ez. Alde batetik, Abadiñoko Barnarte Antzerki Taldean ikastaro bat ematen hasi nintzen, irailan jarraipena izango duena. Bestalde, Eibarko La red Teatro konpainia (Juanma Canok eta Maite Lorenzok osatzen dutena) nirekin kontaktuan jarri zen, eta haiekin antzezlanarekin proposatu. Baietza eman nien, baina zuzendaria izango nintzela agindu nien. *Los olivos pálidos* antzezlanarekin hasi ginen, Juanmak ordurako idatzita zeukana. Oso antzezlan polita da, asko entseatu dugu, eta egunotan Ourense egon gara horrekin. Zoragarria!

- Nola ikusten duzu zure burua hemendik 10 urtera?

Ez dut uste 10 urte zaharragoa izango naizenik: kanpotik bai agian, baina espero dut gaur egun dudan energia berdina izatea, eta nerabe baten espiritua!

Dorleta Vidal



Duela gutxi telebistarako iragarki bat egin du.

Klarel Las lilas ile-apaindegia

Ilea moztu (gizona edo emakumea) 7€

Tindatu 10€

Orraztu 7€

Metxak 20€

Metxa kaliforniarrak 25€

Permanentea 26€

Manikura 9€

Esmaltatu permanentea 18€

Gelezko azazkalak 25€

Abuztuan
zabalik



Aurretiko
txandarekin
bakarrik


Zearkalea 12, 1. peora, 3. atea · ERMUA (BIZKAIA) · 698 91 07 21

Errespetuzko hezkuntza: bada hezteko beste modu bat

Leire Martínezen bizitza hankaz gora jarri zen ama izatean. Ez bakarrik bere bizitza, baizik eta bere uste-sistema osoa ere. Izaro eta Koldo seme-alabak jaio zirenetik, ezohiko bidaian abiatu ziren etxeko guztiak, errespetuzko hezkuntza izanik ibilaldi horren oinarria.

Alaba nagusia jaio aurreko urteak gogorak izan ziren Leire Martínez mallabitarrarentzat. Eta luzeak, oso luzeak. Garai hartan hasi zen umeen hezkuntzarekin zerikusia zuten liburuak irakurtzen, eta haien artean Carlos González peditraren *Bésame mucho* izan zen lehena: errespetuzko hezkuntzaz, maitasunaz eta umeen erritmoak errespetatzeaz jarduten duena. Beste hainbat peditren eta egileren testuetan murgilduta zebilen bitartean, Montessori pedagogian lizentziatua den Beatriz Muñozen lana ezagutu zuen Leirek. Montessori metodoak berehala piztu zion interesa, eta Céline Hameury adituak gidatutako formazio batean parte hartu eta gero, Montessori filosofiarekin eta metodoarekin maitemindu zen.

Azken 22 urteotan Mallabian bizi den emakume honek azaldu duenaren arabera, Montessori metodoak askatasuna ematen dio umeari, eta batez ere konfiantza, umeak gai direlako gurasoek espero ez dituzten gauza asko egiteko: "Gurasoek umeen autonomian konfiantza izan behar dugu, haiek gauzak egiteko ahalmena izan dezaten", azaldu du Martínezek. Kooperazio horri esker umea oso txikitatik hasi daiteke bakarrik janzten, haginak garbitzen eta etxeko lanetan laguntzen, besteak beste. Horiek horrela, gurasoen jarrera "oso garrantzitsua" da, eta haiek prest egon behar dira umeari denbora eskaintzeko: "Askotan, presaren aitzakiarekin, ez diogu umeari lagatzen ezer egiten: nik arinago egingo dut, apurtuko duzu, zikinduko za-



ra... horrelako mezuak ematen dizkiogu, eta kontrakoa egin behar da: umeari konfiantza eman behar zaio".

Eskola aktiboak

Urteak aurrera joan ahala, Leire Martínezek metodo pedagogiko alternatiboetan sakontzen jarraitu zuen (tartean Waldorf, Reggio Emilia eta Pliker pedagogietan), eta momentu jakin batean seme-alabak ohiko eskolatik ateratzea erabaki zuen, bertako dinamikak ez datozelako bat berak egokitzen duen

hezkuntza ereduarekin. Eskola aktiboak eredu hartatik gertuago daude, eta haietako batera eraman zituen umeak. "Montessori, Waldorf, Reggio, Stern, hezkuntza sortzailea, baso-eskola... gure gustuko hainbat filosofia uztartzen zituen eskolan egon ziren gure seme-alabak hainbat urtez, eta oso pozik ibili ziren bertan", gogoratu du Leirek. Izan ere, umeen ongizaterako eta garapenerako naturarekin kontaktuan egotea ezinbestekoa da ama honentzat. "Arreta deitzen dit gurasoren batek

"Askotan, presaren aitzakiarekin, ez diogu lagatzen umeari ezer egiten"

Egaña

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08



ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

esaten didanean seme-alabak psikomotrizitateko klaseetara daramatzala. Natura da psikomotrizitate gelarik handiena! Ematen du gure seme-alabekin zerikusia duen guztia beste profesional batzuen esku utzi dugula!", dio harriduraz.

Baina batzuetan gauzak ez dira aurreikusi bezala irtetzen, eta eskola aktiboan gustura egon arren, COVID-19ak eragindako itxialdiak aldaketak ekarri zituen, eta haren ondorioz, umeak etxean formatzea erabaki zuen, *homeschooling* deritzon metodologia erabilita. Eta horretan jardun du azken ikasturtean ere.

Metodologia honetan, jolasen eta proiektuen bitartez transmititzen dira ezagutzak: zenbakiak, gehiketak, kenketak, idatzi, historia ikasi, natura, planetak... "Dena landu daiteke jolasen bitartez!", dio Leirek, beste ume batzuekin harremanak sustatzen diren bitartean. Eta horiek horrela, filosofia honen jarraitzaileak

diren beste familia batzuekin elkartu dira ikasturtean zehar astean bi egunetan, eta jarduera ezberdinak egin izan dituzte taldean: musika, egurra landu, margoa, sukaldaritza, jai herrikoiak ospatu, irteerak... eta oso esperientzia aberasgarria izan dela aitortzen du (bere instagrameko kontuan proiektu ezberdinen argazkiak ikus daitezke: amaxudedos).

Gizartearen begirada

*Homeschooling*a seme-alabak hezteko aukera bat den arren, batzuetan ingurukoek ez dute ulertzen Leire Martínezen hautua. "Batzuk aurpegi arraroarekin begiratzen naute, baina berdin zait. Egiten ari naizen honetan sinisten dut, oso seguru nago, eta errespetuzko hezkuntzaren emaitzak ikusteak asebetetzen nau —onartu du—. Nire umeek esentzia ez galtzea nahi dut, ez ditut eraman nahi eskolaz kanpoko ekintza batetik bestera, korrika, arnastetuka.



Nahi dut euren haurtzaroaz gozatu dezatela".


Haren esanetan, Europako iparraldeko herrialdeak eskola aktiboetan eta *homeschooling* metodoan aitzindariak dira, eta haien emaitza akademikoak "ikaragarri onak dira". Irakaskuntzaren etorkizunak zalantzak sortzen dizkio, baina hezkuntzaren bilakaera bide horretatik joatea espero du. Izan ere, onartzen du Espainian

eta Euskal Herrian badaudela metodo hauek lantzen dituzten eskolak, baina beste herrialde batzuekin alderatuta, oso atzeratuta daudela, ilararen azkeneko tokietan: "Gero eta aukera interesgarri gehiago dauden arren, oraindik lan handia dago egiteko: bai eskolatan, bai irakasleen formazioan ere", adierazi du.

Dorleta Vidal

FEREDU

SOLUTIONS S.L.



- * HEZETASUNAK
- * ERREHABILITAZIOA
- * INPERMEABILIZAZIOAK
- * MANTENIMENDUAK
- * IGOGAILUAK

- * ERREFORMAK
- * FATXADAK
- * ITE
- * TEILATUAK
- * GARBIKETAK

www.feredusolutions.com
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA

1 906ko urtarrilaren 8an Luis Unamuno Areitio eta Segunda Aranburu Ormaetxearen Arte-kaleko etxian jaixotako hari neskototxuari Eladia izena ipini zotsien. Segundaneko Eladia izango zan herrixan. Parterria zan ama eta haren arrimura hasi zan alabia jardun horretan. Ane Miren Mirandona, Nicolas Unamunorekin ezkondu eta urtietan tia Eladiarekin biziko zan. Ofiziuu urrinera juaan barik ikasi zebala, etxian bertan, diñosku Ane Mirenek: “Bere amak segun zer eitxen zeban, berak zer ein bihar zan eta zertan lagundu leikian ikusten zeban. Estudixu barik, aukerarik be ez zeuazen-eta!”.

Jaiotza-agirietan ez da laguntzen jardundakuen izenik jasotzen eta idatzizko bidietatik eziñezkua da zehaztia ze urtetan ekin zotsan Eladiak. Ahozkuetara jo bihar: 1930 hamarkada hasieran hasitxa zeuan eta 1960a baino lehen laga bazeban be, geruago familia arteko erditzeren baten be egon zan, umiaren amak konfiantza izan berarengan eta propio laguntzeko eskatuta. Ostantzian, etxeko harategixan eitxen zeban biharra, Erdikokalian, Nikolas loibiari laguntzen; astian bi egunez odolostia eixiaz arduratzen zan, gozuak, herrixan entzute haundixa euki zebenak.

Emaginez gain, erizain izatia be tokau jakon. “Ezkondu nintzianian 1969an ez neban partera lanetan ezagutu, indiziñuak ipintzen, bai. Etxera etortzen jakon jendia, ez dakit bera iñorenera juaten



Eladia Unamuno, parterria

Bizi izan zan sasoiaren aginduz ikasketa aukera barik, umeen partuak asistitzeko ofiziuu amarengandik ikasitxakuen adibiderik onena da Eladia Unamuno. Bere gaiñekuak osatzen Ane Miren Mirandona loibiak lagundu dosku.

bazan. Gure seme Edorta ondiñoik akordatzen da bere jeringillekin, harek kristalezko haundixak, lapikotxo baten egosten”, kontatzen dau Ane

Mirenek. Jendiak botikia ekartzen zeban eta ipini berak. Dzast! Orduan indiziño asko emoten zan, gaur egunian baiño dezente gehixao.

Errekaua jasotzen zebanian, lehen bait lehen presentatzen zan umia eitxeko zeuanan etxian. Ondo bazetorren, berak bakarrik asistitzen zeban partua, baiña arazuekin zetorrela sumatzen baeban, Tomas Izagirre ginekologuari deitzen zotsan. Gaiñera, Eladia berari entzunda, Ane Mirenek gogoratzen dau behin baiño gehixagotan juaan izan zala baserrixetara Tomasi laguntzen. Urko basarrira be juanda dago indiziñua emotera eta bertan gelditxu, zortzi ordura beste dosi bat emon bihar zebalako. Nikolas loibiak be laguntzen zotsan batzuetan, bakarrik ez juateko.

Partuetan lasaixa

Behin Sallabentera juaan ume baten partua asistitzera, jausi eta hankia apurtu zeban hainbat lekutatik; erdi herren geratu jakon. Hillabete mordua emon zitxuan hankiori saniatzen. Bera eziñean zeuala, herrixan umiei erditzen nork lagundu ez eta ardura haundixa egon zan estaduan zeuazen andrazkuen artian.

“Zeozar rarua sentitzen dumanian, horixe don partua”, esaten ei zeban. Andrak estima haundixan zeken: komadroña lasai askua zan, estutzera baino tenplau hartzera eitxen zebana eta amek haxe nahi izaten zeben umia eitxeko une bital horretan. “Ni neu be jaixotzeko neuala, Artian bizi arren, Gabonetan-edo Ermura juaan eta gure amak ez zebala umia sentitzen. «Guazen ba Segundana» esan zotsala amamak. Eta Eladiak begitxu ostian amari esan ei zotsan «Hik ezton



URRETA

burdindenda

<ul style="list-style-type: none"> ✘ Etxea ✘ Tresneria ✘ Burkolazja ✘ Erroalak 	<ul style="list-style-type: none"> ✘ Giltzak ✘ Sarrailagintza ✘ Kit altzariak
--	--

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

KRABI

Ileapaindegia
Estetika



Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

eitxen lorik ala?». Neu lo itxuria eta mubidu ezian, ama estu. Eladiak trankildu ei zitxuan bai ama eta bai amama”, gogoratzen dau Ane Mirenek entzunda dakala eurenian. Bere akorduz, tiak ez zeban esturasun apartekorik pasau aktibo egon zan urtietan. Entzunda daka be estaduan geratu eta abortau nahi zeben andrazkuak perexila sartzen zebela, baiña ez daki efektorik eitxen baeban.

Umia jaixo aurretik amari labatiba bat ipintzia ohiko gauzia zan orduan, ipurtzulotik ura sartuta hestiak garbitzeko eta txikixari urteeria errezteko. Eladia arduratzen zan horretaz be eta amen barruok garbitzeko erabiltzen

zeban ontzi haundixa urtietan ezagutu zeban Ane Mirenek etxian.

Kobrau barik

Eladiak kontatzen zitxuan anekdoten artian, bere loibiak gogoratzen dau ijito familia batena: andriari, karruakin doiazela, Ermuan erditzia tokau ei jakon; partuan laguntzeko bila etorri jakozan etxera, amori atendidu eta, esker onez, Eladia izena jarri zotsien jaixo barrixari.

Karruan etorri eta Torretan gelditxutako beste batzui be, etxetik hartutako okelia eruan zotsiela be kontatzen zeban. Kobrau-eta, dirutan ezebez; oparixuak ekartzen zotsien: bordautako moko-paiñeluak, euren kajatxuetan edo arpegi-xan emoteko hautsak, “kaja gorri baten, akordatzen naz... Detailtxuak izaten ziran, baiña kobrau ezebez. Borondate oneko pertsonia zana, dana emoteko beti!”.

Egindako biharra konpensatzeko beste modu bat izaten zan umia bataio egunian elizaraino eruatiana, nahiz eta amabesuetako legez beste bat egon izendatuta. Pozarren hartzen zeban berak ohoretxo



hori! Hori bai, bataio osteko bazkarixetara sarri-sarri konbidau zeben. Eta hor be ez zeban kale egin! Goguan euki zitxuan beti berakin jaixotako ume guzti-guztien izenak, baitxa ze egunekuak ziran. Eta ez hori bakarrik, ze ordutan jaixo ziran be! Gainera, bista ona zekan jakitzeko estaduan zeuan andriak noiz izango zeban umiori. Bere esanetan, ama guapatuta bazeuan mutila zekarren seiñale eta neskia bazetorren aurpegixa jausixago ikusten jakon.

Emagin estudixo eta titulu barik zebilela ikusitxa, salatu egin zeben eta Guardia Zibilen kuartelera eruan zeben. Edadian sartuta orduko, min haundixa ein zotsan horrek.

Urriak beranduago, makalik zala, Guruzetako ospitxalian operatu zuten, handik hobe beharrez Bilboko Santa Marinakora eruan eta bertan hil zan 1983ko urtarrilaren 27an, 77 urte bete barrixan.

Estibalitz González



hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, beheha - Ermua (Bizkaia)

info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23

Bitsi-denda Tailor-pepiotxa Etxeja-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbideta 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

DG Horacio Decoración

TAPIERIA - ALIZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 00
www.dhoriaciodecoracion.com

XXVII. ERMUA HIRIA LITERATUR LEHIAKETAKO IRABAZLEAK JAKINARAZI DIRA

Ermuko Udal Liburutegiak ezagutzera eman ditu XXVII. Ermua Hiria Literatur Lehiaketan saritutako lanak. Aurtengo narratiba lanen gaia "bidaia literatura" izan da, eta epaimahaia Mari Joxe Azurtza Sorondegi donostiarrari eman dio narratiba saria, *PAT* kontakizunagatik. Euskarazko olerkirik onena, berriz, Elena Aierbe Segurola tolosarraren *Hitzak ordainetan* izan da. Gaztelaniazko kategorian, Miguel Angel Muñoz Perez madrildarraren *Mal de niebla* kontaketak jaso du saria, eta poesia modalitatean, Huelvako Alicia Romano egilearen *Sobrevivir* lana aukeratu dute. Udalaren webgunean irakurri daitekeenez, modalitate bakoitzean ematen den saria 400 eurokoa da, eta kategoria ezberdinetan irabazi duten lan guztiak liburutegiko mikro-sitean kontsultatu daitezke. Guztira 326 lan aurkeztu dira edizio honetan: euskaraz, 7 kontakizun eta 10 olerki; gaztelaniaz, berriz, 127 kontakizun, eta 182 olerki.

Maria Rosario Arrizabalaga hil da

Gaixotasun motz baina larri batek amatatu du betirako Mariarroren kemena. Feminista sutsua eta ekintzaile inplikatur, bere berbei erreparatuta benetako bizitza militantzian egindakoa izan da ermuarra. Ahots esanguratsua eta kritikoa izan da gure herriaren azken hamarkadetako historian. Justizia soziala eta berdintasunaren aldeko borrokan etsi barik, feminismoa eta saharar herria izan ditu biziardatz. Irailaren 18an omenaldia eta aitortza ekitaldia egingo zaio Martxoaren 8a plazan.



Gora egin du birziklatu ezin diren hondakinen kopuruak Debabarrenean

2020ko datuekin alderatuta, 2021eko lehen seihilekoan 100 tona hondakin gehiago bildu dira edukiontzi grisetan eskualdean. Debabarreneko webgunean irakurri daitekeenez, edukiontzi grisean uzten diren hondakinak partzialki bereizten dira Donostiako Zubietako tratamendu mekaniko biologikoko instalazioan, baina ezin dira guztiz birziklatu: "Ermuan, Eibarren, Mutrikun eta Deban egindako azterketek erakusten dute, kasu gehienetan, edukiontzi grisean utzitako hondakinen % 65 baino gehiago birziklatu litezkeela, dagozkien edukiontzietan utzi izan balira", azaldu dute zerbitzu honen arduradunek. Horregatik, Mankomunitateak azpimarratu du garrantzitsua dela hondakinak behar bezala bereiztea, dagozkien edukiontzian utziz, birziklatu ahal izateko eta ingurumena zaintzen laguntzeko.

Ugaro

asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusibok:

Allianz 
Seguros

Igone Amesti mezzosoprano mallabitararak kontzertua eskaini du Abadiñon

Uztailaren 10ean kantu emanaldia burutu zen Abadiñoko San Trokaz elizan. J. Haydn konpositorearen *Nelson Meza* interpretatu zuen Durangoko Orfeoia, eta bertan hainbat kantarik parte hartu zuten, tartean Igone Amesti mezzosoprano mallabitararak. Honekin batera aritu ziren Imanol Ganboa, Bidane Txopitea eta Angel Piñero, Fernando Urainen zuzendaritzapean, eta Izadi Ensemble Orkestrak lagunduta. Amestiren sare sozialetan irakurri daitekeenez, esperientzia pozgarria izan zen: "Ederra da gustuko duzun eta ikasten duzun hori egiteko aukera izatea". Honekin batera, eskerrak eman zizkion Durangoko Orfeoari eta emanaldia entzutera hurbildu ziren guztiei ere. Aurretik, uztailearen 3an eta 4an, Durangoko Andra Mari elizan abestu zuen Amestik.



ALEX RAMOS AKTORE ERMUARRAK SARIA JASO DU ROMAKO PRISMA JAIALDIAN

Alex Ramos aktore emuarra saritua izan berri da Rome Independent Prisma Awards zine-sariketan, taldeko aktore onenaren kategorian. Juan Antonio Anguita jaendarrak zuzendutako *12 palabras* pelikulan egindako interpretazioari esker jaso du saria. Ramosek 12 urte daramatza Jaenen, eta 15 urte baino gehiago Ymedio Teatro taldean lanean.



FEDERICO MARTÍN BAHAMONTES LASTERKETA IRAILEAN BURUTUKO DA

Ermuko Gaztela-Mantxa Kultur Etxeak antolatutako Federico Martín Bahamontes klasikoak 25. edizioa beteko du aurten, eta parte hartzaileek irailaren 12ra arte itxaron beharko dute bertan parte hartu ahal izateko. Proba honek bi ibilbide izango ditu aukeran: laburra (90 kilometro) eta luzea (121 kilometro), eta azken honek 2.213 metroko desnibela izango du. Izen-emate epea zabalik dago jadanik (Gaztela-Mantxa Kultur Elkarteko webgunean), eta irailaren 10ean itxiko da. Kirolari federatuek 20 euro ordaindu beharko dituzte proba honetan parte hartzeko, eta federatu gabeek 30 euro.

Julene Bouzok eta Eneko Larreak dominak lortu dituzte Espainiako LXVIII. Txapelketan

Julene Bouzo ermuarrak eta Eneko Larrea mallabitararak parte hartu dute 20 urtez azpiko Espainiako LXVIII. Txapelketan, gorako jauzien disziplinan. Monzónen (Huesca) burutu zen txapelketa hau, uztailearen hasieran, eta Julenek brontzezko domina lortu zuen, 1,71 metrotara zegoen langa gainditu eta gero. Bere aurretik geratu ziren Una Stancev (lehen postuan) eta Irene Clemente (bigarrenean). Bi kirolari horiek marka berdina egin zuten, baina Clementek hirugarren saiakeran lortu zuen langa gainditzea. Bestalde, Eneko Larreak 2,03 metrotara zegoen langa gainditu zuen eta zilarrezko domina lortu.



Plan B
Coffee Lounge Gin & Beer

Torrealday
ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOA
ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

CITROËN
AUTOS AMEDI
Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefona 943 17 04 14

Ferretaria
ANBOTO
Burdindegi
Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu
943 17 69 76
607 33 11 77
ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

SAGARDUI
poltsak
Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

Alazne Lete, ELAko Bizkaiko ordezkaria:

“Gure helburuak lortuko ditugulakoan gaude”

Alazne Letek, ELAko Bizkaiko ordezkariak, Udal kiroldagiko eta Betiondo kiroldagiko garbitzaileek egindako grebaren zergatiak eta helburuak hartu ditu ahotan, soldaten arrakalak salatzen dituen bitartean.

- Zer dela eta hasi zineten greban?

Zentro batekin negoziatu ahal izateko, bi baldintza bete behar dira. Lehenengoa da bertako Udalean aldaketa bat eragitea eta bestea hitzarmen probintzian aldaketa bat egotea. Abenduan aldatu zen Bizkaiko garbiketa hitzarmena, ondorioz mugimenduetekin hasi ginen. Horretarako ELAk prestatu zuen plataforma batean azterketa egin genuen, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko garbitzaileen

arteko soldaten artean dagoen ezberdintasuna nabarmendu genuen: Gipuzkoako langileek 300 euro gehiago kobratzen dute. Beste aldetik, feminismoaren arloan, bi sektore ezberdin genituen: Bata kale garbiketa da, guztiz maskulinizatuta dagoen sektorea; bestea, lokaletako garbiketa, emakumeak protagonistak direnak eta soldata askoz baxuagoa dutenak. Ez dugu uste kasualitatea denik...

- Zenbat greba egin dituzue?

Zortzi. Lehengoko greba-eguna maiatzaren 27an izan zen, eta harrez geroztik beste 7 egin ditugu.

- Greba hauek eraginik izan dute?

Guztiz alboratuta sentitu gara. Bilerak izan genuen Udaleko arduradunarekin 2020ko amaieran, gure egoera, aldarrikapenak eta helburuak azaltzeko. Egun hartan arduradun horren jarrera oso ona izan zen, eta enpresa negoziatzeko prest zegoen,

betiere Udalaren oniritziarekin. Orduan konturatu ginen ez ziotela gobernu taldeari informazioa helarazi, ez zutela inolako interesik eta ez zutela batzartu nahi. Greben ondorioz, bilerak egiten jarraitzea lortu genuen. Harrituta gaude Udalaren erantzuna egunkari baten bitartez jaso dugulako: ELAk ez zituela joko-arauak errespetatzen, eta ez genuela betetzen batzarretan adostutakoa. Halaber, salatu dute garbitzaileen artean eskala bikoitza sortzeko asmoa genuela. Erantzun honetan misoginia puntu bat somatzen da, eta emakumezkoen enpresa garenez, baztertu egin gaituzte eta ez dute betetzen batzar probintzian adostutakoa.

- Zeintzuk izan dira grebaren ondorioak?

Orain arte feminismoarekin eta gizarte kritikoa batekin lotura izan ez duten emakumezkoak ahaldu egin direla, eta euren burua greba baten markoan ikusten dutela, borrokatzeko prest daudela, eta borroka honen amaierara arte heltzeko gogotsu.

- Noraino helduko zarete?

Amaierara arte heldu nahi dugu. Arrakasta izango dugulakoan gaude. Azterketa estatistikoa bat egin dugu, eta datuek errealitate bat agerian uzten dituzte eta gure hipotesia indartu. Beste Udal batzuetan lortu dugu eta hemen ere lortuko dugulakoan gaude.

Eneko López



Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



Amaia Galindo de Paula, idazlea:

“Nire lana buru-argitasun momentu baten emaitza da”

Retales de un instante contigo kontakizuna sentimenduetan oinarrituta dago, bere egilea den Amaia Galindo ermuarraren sentimenduetan, hain zuzen ere. Hilabete igaro da liburua argitaratu, eta bere barnea besteen aurrean biluztu zuenetik.

- Zure liburua esku artean duenak zer topatuko du bertan?

Esperientzia pertsonal bat. Zerbait gertatu zitzaidan, eta hura adierazteko gaitasuna izan dut, nahiko modu errazean adierazi gainera: inspirazioa etorri, eta berehala. Bizi izandako guztia kontatzeko beharra sentitu nuen, ez argitaratzeko helburuarekin, baizik eta nire burua asebetetzeko.

- Baina, bidean, argitaratzea erabaki zenuen...

Bai, niretzako oso garrantzitsua den pertsona batek aurrera egiteko esan zidan. Anaiak ere bultzadaxoa eman zidan.

- Hain barneko zerbait idaztean, jendaurrean biluztu izanaren sentsazioa duzu?

Bai, argitaratu eta gero jabetu naiz horretaz. Dena den, bizitzan dagoen gauzarik ede-



rrenez hitz egiten dut, maitasunaz, beraz aurrera eta kito!
- Zenbat ale argitaratu dituzu? 100 ale, eta Internet bidez eros daiteke.

- Literaturara hurbildu zaren lehen aldia izan da?

Txikitan asko gustatzen zitzaidan idaztea eta irakurtzea, baina nerabezaroan utzi egin

nuen. Itxialdian zaletasun horiei berriro heltzeko aukera izan dut: lasai egon, nire buruari denbora eskaini, eta gustuko gauzei tartea egin.

- Asmoa duzu zaletasun honi jarraipena emateko?

Nire lana buru-argitasun momentu baten emaitza izan da, lasai nengoela agertu zena, eta egunerokotasunean ez daukat horrenbesteko lasaitasunik. Hala ere, maiatzean Diversidad Literaria argitaletxeak antolatutako olerki lehiaketa batean parte hartu nuen, eta nire poesia bat aukeratu zuten liburu batean jasotzeko. Horrez gain, poema-bilduma batean dihardut lanean, baina bukatzeke daukat, ordenagailura pasatu barik.

- Zein teknika erabiltzen duzu idazteko?

Gehiena mugikorrean idazten dut, word programan: zerbait atentzioa ematen didanean bertan idazten dut, horren inguruko ideiak garatu, eta paperera pasatu gero. Paperean behar beste aldaketa egiten ditut, koloreetako boligrafoekin. Azkenik, testua nire gustukoa denean, ordenagailuan idazten dut. Ez da lan makala!

Dorleta Vidal

SEHIGA
PROTECCIÓN LABORAL
Y PLAN DE EMERGENCIAS
ORDINARIA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

HARATEGIA - URDATEGIA
MIGUEL
2012ko BILEBO
TXORIZO TXAPELLETAN
BIZKAIAKO
TXAPELDUNAK
PROBLEMA 3-943170563
ERMUA

ZK

ARKITEKTURA ESTUDIOA
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOAK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI www.spara.es
info@spara.es

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**ZUZENBIDE
KONTUAK**
Lege eta
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Jesús María Pato: Herri-kirolen ikurra

Jesús María Pato harri-jasotzaile bezala nabarmendu zen, eta inork hobetu ezin izan dituen markek haren izena daramate oraindik ere. Horrez gain, 30 urte eman ditu Ermuko Udaleko brigadan.

Jesús María Pato 1953an jaio zen Ermuan, baina 3 urte zituenean, familiaren sorterrira bueltatu zen, Presqueirara, Baños de Molgasera (Ourense). 15 urterekin Euskal Herrira bueltatu zen eta, ordutik burutu dituen hainbat zereginengatik, aurpegi ezaguna da ermuarrentzat.

Herri-kiroletan kasualitatez hasi zen, erdi-txantxetan, 29 urte zituela. Herrikoentzako txapelketa antolatu zen Batzokian: 100 kiloko bola altxatu behar zen eta gonbitea egin zioten: "¡Prueba tú, gallego!". Probatu zuen, eta lehenengoan altxatu.

1,80 metroko altuera duen gizon honek indarra bazuen, ez ordea teknikarik. "Euskadiko txapelduna zen Jose Antonio Gisasola "Zelai" bertan egoten zen, eta sufritu egiten zuen ni harriak altxatzen ikusterakoan —gogoratzen du Patok—. Bere baserrira eraman ninduen, eta bertan hasi nintzen entrenatzen". Gero eta harri handiagoak altxatzeko grina zuen Jesús Marik, eta denborarekin 265 kilo altxatzera heldu zen.

Gauregun, oraindik, Bizkaiko hainbat marka ditu: Albizuri Aundi harriarena, 177,5 kiloko bolarena eta 251 kiloko errektangularrarena. Halaber, Euskadiko marka dauka 6 bole-



kin: 200 kiloko errektangularrara, 225ekoa, 175eko kubikoa, 163koa, 150eko bola eta 100 kiloko bola esku bakarrez. Errekor hau 50 urte zituela lortu zuen, eta 51 urterekin Euskadiko marka lortu zuen 175 kiloko bolarekin. Gainera 5 apustu jokatu zituen, eta horietako 4 irabazi (bostgarrenera ez zen aurkeztu lesionatuta zegoelako).

Sasoian egoteko astean birritan entrenatzen zuen Zelairekin, eta haiekin batera egoten zen Patoren semea ere, aitak egiten zuenari so. Hura ere laster hasi zen harri-jasotzen, eta 15 urterekin 150eko erre-

tangularrara altxatu zuen San Lorentzoko jaietan.

Sakrifizio handia eskatzen duen kirola izan arren, herrikirolei esker "izugarri ondo" pasatu duela aitortzen du Jesús Marik: "Europar zehar bidaiaitzeko aukera ere eman dit: Bruselan, Frantzia eta Portugalen egon naiz, besteak beste, eta Bartzelonan, Kordoban, Galiziarako telebistan eta Tele 5n ere", gogoratu du. Baina pena bat dauka: 265 kiloko errektangularrarekin plazara irten ez izana. "Etxean altxatuta neukan, baina ez nuen plazara atera, eta federazioak ez zuen jaso. Gauza bera gertatu zitzaidan 190eko bolarekin".

Jesús Marik 52 urterekin utzi zituen herri kirolak, hasierako ilusioa galduta zuelako. "Ustedut gauza bakoitzak bere momentua duela eta nire indarra behera zihoan. Harria laga nuen, 225 kilo altxatzen nituen oraindik, baina nahiago izan nuen sasoiaren nengoenean utzi", adierazi du. Dena den, ordura



arte bezala, herri-kiroletako saioak antolatzen jarraitu zuen, bai Ermuan baita beste zenbait herritan ere.

Eta zein da herri-kirolen egungo egoera? Bada Patoren ustez horien presentzia kalean jaitsi egin da, hala nola afizioa, eta orokorrean ez luke esango egungo harri-jasotzaileek lehenagokoen maila bera dutenik.

Brigadako langilea

Herri-kirolen zaleak ez direnak, bere lanbidea dela-eta ezagutuko dute Pato. Izan ere, 1982an hasi zen Ermuko Udaleko brigadako langile bezala, eta 37 urte egin zituen bertan. Bere gustuko lana izan zen hura, egunero zeregin ezberdina eskatzen ziona: igeltsero eta kofratzaile lana, txofer, elurra kendu, auzoka ura eman eta kendu lehortea zegoenean, eszenatokiak muntatu... "denetik egiten nuen".

Onartzen du lanean hasi zenetik gaur egunera arte, Ermua "ikaragarri" aldatu dela: "Orduan ez zegoen ia ezta espaloirik! Gogoan daukat Udaletxea jada lekuz aldatuta zegoela, baina Pagaldaiko zerrategiaz akordatzen naiz, baserritarrak plazara joaten zirela oraindik, jubilaetuak ipini zituztela plazan... Askok aldatu da dena, hobera".

2015ean aurre-jubilatu zen, eta 2019an utzi zituen lan guztiak, pena handirik gabe: "Gustuko lana izan zen, baina erretiroa hartzean nire buruak atsedean itzela hartu zuen".

Dorleta Vidal



Axpe Aja, kirolaria:

“Ahal izango banu, kirol guztiak praktikatuko nituzke”

Txikitatik kirol anitz praktikatzen ditu Axpe Aja ermuarrak: batzuk plazer hutsez eta beste batzuk txapelketetan aritzeko. Aurten txapelkunordea izan da Euskadiko fondo txapelketan, 16 urtez azpiko kategorian.

- Zenbat kirolean ibiltzen zara?

Txirrindularitza betidanik egin dut, txikitatik ibili naiz bizikletan, baina talde baten LHko 4. mailan apuntatu nintzen. Atletismoan LHko 3. mailan hasi nintzen. Surfa ere egiten dut, udan batez ere. Eta azkeneko hilabeteetan eskubaloia ere probatu dut.

- Zer sentitu zenuen Euskadiko fondo txapelketan bigarren izatean?

Ez nuen espero. Bertan, 12 minutu baino gutxiagoko marka egin behar nuen, horretarako entrenatu nuen. Baina ez nuen espero bigarren gelditzea eta asko poztu nintzen.

- Noizbait lortu duzu horrelako posturik?

Ez, alebin eta infantiletan ez



dagoelako Euskadiko txapelketarik, Bizkaikoak baizik. Noizbait irabazi dut Bizkaiko txapelketa, adibidez, eta orain dela gutxi Bizkaiko bigarrena izan naiz oztopo lasterketan, eta Euskadiko hirugarrena. Txirrindularitzan Espainiako txapelketa egingo da, eta erreserban nago, bigarren gelditu nintzelako.

- Nolako izan da aurtengo denboraldia?

Oso desberdina, infantilekin

ibili naizelako orain arte, eta orain kadeteekin nabil. Arraroa izan da helduagoekin aritu naizelako eta gurasoak ezin zirelako harmailetan egon, batzuetan ezin zelako entrenatzailea ere etorri... Bestalde, entrenamenduak ere ezberdinak izan dira, zehatzagoak. Lehen atletismoko taldearekin egoten nintzen, eta lagun asko ginen; orain, aldiz, COVID-19aren ondorioz, oso jende gutxirekin egon naiz entrenatzen. Baina oso gustura!

- Nondik dator zure kiroleterako grina?

Betidanik gustatu zait: ahal izango banu, kirol guztiak praktikatuko nituzke, kirol desberdinak egitea gustatzen zaidalako. Aitarengatik hasi nintzen bizikletan, berari gustatzen baitzaio. Korrika egiteari dagokionez, gurasoek ikusi zuten korrika asko egiten nuela, asko gustatzen zitzaidala, eta giro ona zegoela, eta apuntatu ninduten. Bestalde, betidanik izan dugu kanpina Landetan eta bertan oso ohikoa da surfa egitea. Kanpinean probatu nuen, asko gustatu zitzaidan eta jarraitzen dut.

- Gogoratzen duzun momenturik?

Adibidez, txikitik krosetara joaten ginenean, lagunekin autobusean abesten gindoazela denok, eta krosa amaitzerakoan lur jota bukatzen genuela, denok zikin-zikin... Gogoratzen dut ere Ermuan Bagarako duatloia izan zenean ere, oso ondo pasatu nuela. Karrera irabazi nuen eta kristoren giroa zegoen, musika, jolasak... oso gustura!

- Hemendik aurrera...

Atletismoan jarraitu nahi dut, talde berean, ahal dudan guztia egiten eta ahal dudan hoberean entrenatzen. Aldi berean, surfaz gozatzen jarraitu nahi dut. Eta txirrindularitzan al daketa nabarmenagoa izango da, taldea aldatu eta gogorrago entrenatu beharko dudalako.

Jon Saez



quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia
Silvia
peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474

688819336

Hitz batean

Duela gutxi, irratia entzuten ari nintzela, Gazteako esatariak "asmakizun" bat proposatu zuen: Pertsona bat taberna batean sartzen da eta baso bat ur eskatzen dio zerbitzariari, zerbitzariak eskopeta bat ateratzen du, bezeroak eskerrak ematen dizkio eta joan egiten da. Zergatik? Zer gertatu da?

Mezuak bidali behar ziren, eta entzuten ari ginenon burmuinak martxan jarri ziren. Zergatik aterako zion eskopeta hori? Seguraski, baso bat ur edo ur baso bat esamoldearekin du zerikusia, edo "mese" esango zion, edo "eskerrik", edo "estupendOA"...

Entzule askok idatzi zuten hizkuntzarekin zerikusia zuten erantzunak emateko.

Txantxak alde batera utzita, poztu ninduen ikusteak erabiltzen ditugun hitzei zer nolako garrantzia ematen diegun. Hitzak hor daude, eta ahaztu egiten dugu, baina zein garrantzitsuak diren...! Zenbat min, poztasun, indar, itxaropen... eman daiteke hitz bakar batekin!

Hizkuntzak, izaki bizidun batek bezala, etengabe eboluzionatzen du: hitz berriak sortzen dira eta beste batzuk betirako desagertu. Honen adibide oso esanguratsua da 2021eko



Alicia Lorenzo

lehen sei hilabeteetan Euskaltzaindiak hiztegirotutako hitzen zerrenda: asintomatiko, autobabes, deskofinamendu, emotikono, mojito, portzierto, smartphone, queer...

Zerrenda luzea da (592 forma berri jaso dira), baina hortik asko desagertutako hitzen zerrenda batean egotea espero nuen egia esanda, esaterako: estigmatizazioa, esplotatzaile, heteropatriarkatu, homizidio, patera... Baina hizkuntza gizartearen isla zuzena da.

Horiek horrela, asmakizunaren erantzuna "zotina" zen. Zerbitzariak eskopeta atera zuen bezeroak zotina zuelako.

“ Hizkuntzak, izaki bizidun batek bezala, etengabe eboluzionatzen du ”

”

SAN ANTONIO OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen

PABLO INTXAURRAGA

- Nola gogoratzen duzu haurtzaroa Etxarrin?

Haurtzaroa oso ondo gogoratzen dut: familiarekin, lagunekin... Herri txikia da, eta denok elkarrekin ibiltzen ginen, egun osoa kalean.

- Eta gaztaroa?

Gaztaroa ere oso ondo. Istiluren batean parte hartuta, baina denok egiten dugunaren antzera.

- Baduzu zerbait gurasoek irakatsi dizutena eta gogoan duzuna?

Baditut amak irakatsitako hainbat printzipio eta balore, eta saiatzen naiz horiek mantentzen eta aurrera eramaten.

- Zergatik etorri zinen Ermura?

Sukaldaritza ikasteko etorri nintzen.

- Betidanik nahi izan duzu sukaldaria izan?

Bai, beti nahi izan dut sukaldaritzan ibili. Zarautzen ikasi nuen Erdi Mailako zikloa eta gero Bilbon, Artxandan. Hasieran asteburuetan bakarrik etortzen nintzen Ermura, baina azkenean erabaki nuen hemen geratzea. Giro polita dago, beti dago zerbait, herri berezia da!

- Nolatan London taberna hartzeko erabakia?

Badut esperientzia sukaldaritzaren arloan, eta banekien



Amarekin hazitako Etxarriko tabernaria. Orain dela 10 urte, 16 zituela, etorri zen Ermura sukaldaritza ikastera. Hasieran asteburuetan bakarrik etortzen bazen ere, Ermuan geratzea erabaki zuen gero. Orain London tabernako jabea da.

ez nuela jatetxea ireki nahi. Ez nuen nire burua ikusten lokal propio batean. Baina taberna hau ondo ezagutzen dut, eta inguruko giroan oso gustura sentitzen nintzen. Asko atsegin nuen, beraz, giroa mantendu ahal izateko taberna hartzea erabaki nuen.

- Zein musika estilo duzu gustuko?

Ska gustatzen zait, baina tabernan askoz ere estilo antizagoak entzuten ditut.

- Aisialdian?

Denoi gustatzen zaiguna: lagunekin egon, poteoan ibili, familiarekin elkartu...

- Zer eskatzen diozu lagun bati? Zer da garrantzitsua zuretzat?

Nire ustez lagun bati ez zaio ezer eskatu behar. Berak zerbait behar badu, laguntzarik behar badu, bertan egotea da garrantzitsua; behar duen horri erantzun ahal izatea, eta konfiantza itsua izatea berarengan.

- Kirolen bat praktikatzen duzu?

Aspaldi ikasi nuen lehiakor-tasuna ez zela nire gustukoa. Lagunekin pilotan ibiltzea gustatzen zait, baina ez era profesionalean.

- Zer irakatsi dizu bizitzak?

Gogotsu hartu behar dela. Egundua osoa zure baitan itxita bazaude, zaila dela aurrera egitea.

- Ba al dago egin ez duzun eta damutzen zaren zerbait?

Bizitzan gauzak gertatu egiten dira eta uste dut egin nahi izan dudak guztia egiteko kapaza izan naizela beti. Hori dela-eta, ez dut penarik.

- Eta inoiz hartu duzun erabakirik zailena?

16 urterekin Ermura etortzea. Toki ezezaguna zen, eta inguru eroso batetik atera behar izan nintzen. Erabaki honek nire bizitza osoa markatu du.

Nahia Ruiz Albizuri





ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



- Itsaskabra pudina.

- Txipiroiak.

- Piper beteak: okela edo onddoak.

- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.

- Redondo saltsan.

- Sagar tarta.

- Gazta tarta.

- Tortila patata...

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

**Erdikokale 13
(Ermua)**

**ENKARGUAK
943 030 299**

MALLABIA 1975

Argazki hau 1975 urte inguruan aterata dago Ibutx baserrian.

Bertan agertzen dira: Jose Astarloa, Juanito (Soraluzekoa), Gabino Astarloa, Prudencia Basterretxea, Pedro Mari Agirrebeitia, Mari Carmen Astarloa, Juanita (Soraluzekoa), Rufina Bernaola, Ignacio Astarloa, Mari Carmen Agirrebeitia, (ezezaguna), Mari Asun Agirrebeitia, Jose Ignacio Agirrebeitia eta Pedro Agirrebeitia.



✱ Ekaineko Mallabiko argazki zaharra 1988. urtekoa da, eta ez 1983ekoa.

ERMUA 1954



Uda izanik eta errekan ur gutxi zetorrela aprobetxatuz, Zezen Egunean ohiko gauza bihurtu zen Zubiaurren goratxoago edo beheratxoago atxa artera jaitsi eta argazkiren bat ateratzearena.

Honetan agertzen dira ezkerretik eskumara, atzean Juanita Arana eta M^a Angeles Alberdi; aurrean Rosi Solozabal eta Laura Potente.



Eskuz egindako
terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

Udal Euskaltegia
Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua
ERMUA · 943 170 925
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da irailetik aurrera umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648625209.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 044 001

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.
© 617 67 49 27



Abuztuaren 2an
Zorionak Mattin!
Eskerrik asko 3 urte hauengaittik! Asko maitte zaittugu!



Abuztuaren 7an
Zorionak Alaitz, 7 urte beteko dituzu, etxeko printzesa. Musu handi bat!! Maite zaitugu!!



Uztailaren 28an
Zorionak Inhar!!
Gure txapeldunak 4 urte beteko ditu! Gozatu egunaz! Maite zaitugu!



Lur (uztailaren 12an) eta Izar (abuztuaren 2an)
Gure marimatrakak badoiaz aurrera!! Zorionak maitxiak, jarraitxu gure bizitzak holan alaitzen! Maitxe zaitxuegu!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com

Azken eguna: Irailaren 15a.

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

arral97.com
arral

Telf.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Goitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Kopi-Fax

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISSETATAN

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

Hamburguesería TITANIC



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

**ERMUA:
UDAKO ZINEA****ABUZTUAK 2, astelehena**

"Padre no hay mas que uno 2". Guztiontzat.

ABUZTUAK 4, asteazkena

"Onward". Guztiontzat.

ABUZTUAK 9, astelehena

"Asterix eta edabe magikoaren sekretua". Guztiontzat.

ABUZTUAK 11, asteazkena

"Espías con disfraz". 7 urtetik gorakoentzat.

ABUZTUAK 16, astelehena

"Dora y la ciudad perdida". Guztiontzat.

ABUZTUAK 18, asteazkena

"El gran baño". 12 urtetik gorakoentzat.

ABUZTUAK 23, astelehena

"Agur Etxebeste". 7 urtetik gorakoentzat.

ABUZTUAK 25, asteazkena

"Las invisibles". 7 urtetik gorakoentzat.

Emanaldi guztiak 22:00etan hasiko dira.

Orbe kardinalaren plazan.

**MALLABIA:
ANDRA MARI KULTURALA 2021****ABUZTUAK 14, larunbata**

17:00 "Mr. Frack" zirkua eta umorea parkeko aterpean.

21:15 Pilota partidua herriko frontoian:

ELORDI - O. ETXEBARRIA // LARRAZABAL - URIONDO

URRUTIKOETXEA - MARTIJA // EZKURDIA - IMAZ

Sarrerak udaletxean salgai:

- Mallabiko langabe, ikasle (18 urtetik beherakoak), jubitatu eta pentsiodunentzat: 12 € (justifikazio txartela erakutsita).

- Gainontzeko mallabitarrentzat: 18 €.

- Partidu egunean txartel-leihatila 20:30ean zabalduko da eta sarrerek prezio bakarra izango dute: 25 €.

ABUZTUAK 15, igandea

11:00 Meza Jasokunde parrokian.

12:15 Mallabiko dantzariak plazan (euria bada, herriko frontoian).

16:00 Mallabiko XXXI. HARRI-JASOTZE SARIA Harri Txikia, herriko frontoian.

19:00 "Jule" kale antzerkia parkean (euria bada, CIP-eko futbito zelaian).

22:00 Gozategi taldea parkean (euria bada herriko frontoian).

ABUZTUAK 16, astelehena

11:00 Meza Jasokunde parrokian.

12:30 Capicua taldearen "Koselig" ikuskizuna herriko frontoian.

16:00 / 17:30 / 19:00 Berdintasunaren aldeko "Escape room"a Kultur Etxean: 12 urtetik aurrera, 6 laguneko taldeak.

20:00 Luhartz taldea parkean (euria bada herriko frontoian).



**TXINDURRI
TALDEA**
Tokian
tokiko

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

**Infreñu
Taberna**

Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

ALBOKA

**MUSIKA
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

ONAK LEIRE MAYORA
PODOLOGOA
 Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 ☎ 943 17 47 44

irale
 Hortz Klinika
 Clinica Dental
 U. Zabalza, 4
 48260 Ermua, Bizkaia
 ☎ 943 17 71 98

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

- Aho eta inplante kirurgia
- Hortzetako protesiak
- Hortz estetika
- Ortodontzia
- Odontopediatria
- Endodontzia eta odontologia kontserbadorea

Hortz klinika berri eta handitu dugu
 San Inazio 4 Ermua Tel.: 943 030 512
 niklinika@gmail.com

OSASUN GIDA

fisioterapia
 eta osteopatia
 zentroa
aitziber

Aitziber Fernández
 Telf. 943 17 60 95
 629 88 70 89
 Sexto Centenario 13, beheak
 48260 ERMUA (Bizkaia)

Zuri egokitzen
 den odontologia
 La odontología
 que se adapta a ti

SAN PELAYO
 HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

Dra. ULATZ GARCÍA ARREGUI ☎ 943 17 04 04

- P.A.D.I
- IMG
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

info@clinicassanpelayo.com
 San Pelayo Zetarkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

FUB Mediku psikiatra - Psikosomatika
 Psikoterapia psikoanalitikoak

FERNANDO URIZ AR BARANDIARAN
 Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
 Bailen Kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
 furizar1@yahoo.com

Osasun gidan agertu nahi baduzu,
 deitu 943 17 93 50 edo
 688 63 28 76 telefonoetara
 edo idatzi drogeten@gmail.com helbidera

KARTA BERRIA NUEVA CARTA

Zuretzat berritzen jarraitzen dugu

MAÑEKO TERRAZA



Zure zentzumen guztiak biltzen dituen ingurune naturala

MAÑEKO TERRAZA

Eskaneatu QR hau zure
telefonoarekin

